


Zaborrak zalantzan

Edo planeta jankatzen duen sistema kapitalista eta produktibistaren ezin konponduzko arazoa

Sarrera

2011. urtean, Bizi!-k bere hausnarketen ardatzetan barneratu zuen hondakinen problematika. Alabainan, hondakinen kudeantza politikari gutietsia da erabakitzaile eta publiko zabalarengandik, honek interes guti eragiten baitu.

Alta, zaborraren gaia hurbil hurbiletik lotua da gailentsumitzen duten gure jendarteko bizimoduari. Gainera, zaborra gure antolakuntza ekonomikoaren produktibismoaren osagai bat da. Eta, gailentsumitze eta produktibismoa dira berotze klimatikoaren arazo nagusiak. Izan ere, kontsumo-gizartea barne-produktu gordinaren (PIB/BPGaren) esponentzialezko hazkunde baten gainean oinarritzen da. Bestalde, egurats edo atmosferan CO₂ kopuruaren emendatzea da klima-aldaketaren arazo nagusia. Haatik, behean den diagramak erakusten duen bezala, CO₂ horren emendatzea barne-produktu gordinaren gorapenari hurbiletik lotua zaio.



CO₂ isurketen eta mundu mailako PIB/BPG-aren arteko lotura/harremana erakusten duen grafikoa

Batez beste, Ipar Euskal-Herriko biztanle bakoitzak, urtero 385 kg hondakin sortzen ditu, barnean 306 kg etxeko-zabor hondarrak (OMR /EZH)¹ (guztizko %80), 34 kg beira, 25 kg egunkari, paper, aldizkari, 20 kg gainestalki, zabortegetan utziak diren beste hondakinak zenbatu gabe. (Iturria: Bil Ta Garbi)

Agiri honek, Bizi! elkartearen jarrera azaltzeko xedea du. Urtean zehar eginikako anitz barneko azterketen eta eramandako ikerketen bilduma osatzen du, alde batetik etxeko-zaborren tratamenduaren problematikari buruz eta beste aldetik, Bil Ta Garbi sindikatuak Ipar Euskal-Herriaren ipar eskualdeko eremu geografikoetan burutu dituen hautuei buruz.

Lurralde honetan, hondakin tratamenduaren testuinguruaren hurbileko historia eta herriko eragile ezberdinen papera egin ondoren, "Canopia" izendatua den egitasmoa laborzki azaltzen du agiri honek.

Ondotik, Hego Euskal-Herrian eramana den Zero Zabor esperentzia aipatua da, halaber Bil Ta Garbi-k jarraitzen duen gaur egungo bideari posible zitzaizkion beste alternatibak.

¹ **Ordures Ménagères Résiduelles (OMR) / Etxeko Zabor Hondarrak (EZH)**: etxebizitzetako eguneroko bizirik ateratzen diren hondakin ezin birziklagarriak edo ezin balioztatuak.

I / Egoeraren azalpena:

A/ Legezko betebeharrak eta tokiko eragileak:


1975etik goiti, herriek haien etxe hondakinak derrigorrez bildu eta tratatu behar dituzte. EPCI²-etan (Hirigune Elkargo, Herri Elkargo, Sindikatu) bildu dira beraz etxe hondakinaren bilketa eta tratamendurako.

1992ko uztailaren 13ko legeak dio besteak beste 2002ko uztailaren 1etik goiti, azken hondakinak³ baizik ez direla lurperatuak izanen.

Elkargoak orain behartuak dira haien hondakinak balioztatzea lurperatu aitzin.

Euskal Herriko elkargoek (Bizi Garbia Sindikatuan ordezkatuak direnak ez ezik) eta hiru biarnes kantonamenduk, gogoeta bat eraman dute eta honen ondorioz, Bil Ta Garbi (BTG) Sindikatu Anitza sortua izan da, 2002an, tratamenduaren eskumena honi eskualdatuz.

Horrela, EPCI/HALEP-ek hondakinaren bilketaren eskumena atxikitzen dute eta BTGren zereginetan sartzen da etxe hondakin eta hala ekarriak direnen⁴ kudeaketa sare orokor bat plantan ezartzea, Pirinio Atlantikoetako mendebaldeko zati handi batean.



B/ Gertatzen ari eta gertatuko diren aldaketak:

Bacheforès-eko erraustegi lantegia hetsiz, BTG Sindikatuak lurperatzearen aldeko hautua egin du. Oroitu behar da 1990ean Bacheforès gunean irekia izan zen lantegi hau, Europako onenetarikoa bezala ekarria zela. 2005ean hetsia izan zen, ingurumen arauak betetzen ez zituelako (keen tratamendua eta Aturrira zuzenki isurtzen ziren lixiviatuak edo «hondakinaren zuku») eta trabak eragiten zizkielako inguruko bizilagunei. Teknologia mirari honek zenbait milioi baizik ez zitzaien kostatu hiritarrei. Gaur egun, OMR/EZH-en %60 lurperatuak dira hondakinaren biltegitratze gune batean Gironde departamenduan. Horrek erran nahi du 55 000 tona hondakinak urtero guti gora behera bidaiatzen dutela (hauetarik %80 Hirigunetik datozelarik) eta aste guziz bidean ibiltzen diren kamioien kopurua biderkatzen dutela. Egoera hau iragankorra da eta Eskualdeko Prefetak eskaini baimen bereziaren epea bukatzekotan izanki, ez da 2013tik aitzina gehiago luzatuko. Gelditzen den %40a, Bizi Garbia sindikatuak kudeatzen duen Senpereko gunean lurperatua izanen da.

² EPCI/HALEP: Etablissement Public de Coopération Intercommunale /Herrien Arteko Lankidetzaren Erakunde Publikoa.

³ Azken Hondakinak: momentuan diren baldintza tekniko eta ekonomikoak konduan hartuz tratamendu gehiago ezin duten jasan hondakinak.

⁴ Etxe hondakinak eta hala ekarriak direnak: bikoteek edo etxebizitzetako biztanleek sortzen dituzten hondakinak, «noizean behinekoak» diren bolumen handiko «trabagarriak», hondakin berdeak eta brikolajetik jiniakako hondakinak.

C/ Bil Ta Garbi (BTG)ren hautua:


BTG Sindikatua etxe hondakinen tratamendu eskema bat plantan ezartzera engaiatu da. Horretarako, ikerketa bat burutua izan da eta erraustetik balioztatze biologikora, biohondakinen bilketa bereziarekin Sailkapen Bereizketa Mekano-Biologikoatik pasatuz (SMB), doazen gidoi desberdinak proposatu ditu.

BTG-k Sailkapen Bereizketa Mekano-Biologikoa hautatu du, 2013an zerbitzuan ezarriak izanen diren bi balioztatze polorekin:

Canopia: Baionako Poloa, metanizazio⁵ bidezko balioztatze batekin (bai eta gainestalki eta egunkari, kazeta, aldizkari –JRM/EKA-en bereizketa zentro bat ere).

Mendixka: Sarrikitia-Piako poloa, hondakinen biltegitratze gune batekin.

Hurbiltasun eta erantzunkizun printzipioaren arabera, mendebaldeko zonaldeko poloa hirigunean plantatua izan behar da, BAB-ko Hirigune Elkargoak etxe hondakinen %44 ekoizten baitu. 5 gunetan (4 Baionan, 1 Angelun) egin irizpideaniztun ikerketa baten ondorioz, BATZeko gunea atxiki dute aho batez Sindikatuko hautetsiek.




⁵ **Metanizatzeko:** biogasaren ekoizpena ekartzen duen anaerobia (oxigenorik gabe) ingurumeneko hartidura prozesua, energietan eta metanoan aberats dena bai eta konposta bezalako produktu egonkortutan baliozta daitekeena.

II / Batzeko Bereizketa Mekano-Biologiko zentroa :

Baionako Iparraldean, Batzeko gunean, 2012an, Urbaser enpresak Ipar Euskal Herriko etxe hondakinen %70aren tratamendu zentro bat eraikitzen hasten da. Hainbat jardueri eskainia izanen zaio, zaku beltzetatik datozen etxe hondakinen Bereizketa Mekano-Biologikoa, produktu birziklagarri eta trabagarrien bereizketa eta leku aldaketa.

A/ Prozedura industrialia:

2013ko bukaeran beraz, aldaketarik ez, ez herrientzat, ez eta erabiltzaileentzat: azken hauek molde berdinean beteko dituzte haien zikinontzi beltzak eta espaloietan edo edukiontzietan ezarriko dituzte, bilketa kamioiak pasatuko dira hauek hartu eta zentro honetara eramanez. Bertan, botatu, nahasi, aitzinhartitu eta bereiziko dira materia hartzigarri⁶, materia birziklagarri⁷ eta azken hondakinengandik saihesteko gisan.



Zikinontzi batzuetan, oraindik zorigaitzez atzematen diren produktu kimikoek partzialki partzialki kutsatu materia organiko hauek (pilak, erremedioak, etxe produktuak...) ondotik metanizatuak izanen dira aldi berean gasa eta « konposta » ekoizteko. Prozedura honen bitartez, gerta daitekeen arriskua litzateke NFU 44 051 norma (honen erabilpena balidatzen duen frantses norma laster europar araudiaren mailan seguru aski azkartuko dena) lor ez dezakeen « konposta » delako bat lortzea. Ez badu lortzen, lurperatu⁸ beharko da.

B/ Biztanleria mehatxatua eta ekosistema bat lanjerrean:


Zentro honen eraikitzeak aurreikusia izan den lekua, dentsitate azkarreko bizitegi gunea da. Hurbil diren bizilagunentzat, zentro honen plantatzearekin usain txarrak hedatzearen arriskuak badira, Amétyst zentrotik hurbil gertatu den bezala. Montpellier hiriguneko zentro hau kontzepzio berdintsukoa da, eta Kontu Gorteak egin bisita batek karietara makur hauetaz ohartzeko parada eskaini zuen. Zentro horretan berean sute bat izan zen 2010eko irailan eta lan istripu parrasta bat agitu⁹.

⁶ **Materia hartzigarriak:** materia organikoak, biodegradagarriak, konpostatzearen bidez edo metanizatzeaz tratatuak izaiten ahal direnak: hondakin berdeak, sukaldako edo baratzeako soberakinak.

⁷ **Materia birziklagarriak:** produktu baten ekoizpen zikloan sartzen ahal den materia: papela, kartoina, berina, plastiko mota batzu, metalak... **Adibidez:** botoila berrien fabrikatzea botatuak eta beriz bilduak izan diren botoilen berinarekin.

⁸ **ADEME,** abisu berezia etxebizitzetako hondakinen sailkapen tratamendu mekano-biologikoari buruz, 2010eko maiatzan.

⁹ **Ametyst kasua, Konduen Korteak, 2011ko irailaren 14an aipatua:** www.midilibre.fr/2011/09/14/le-cas-ametyst-cite-par-la-cour-des-comptes,387729.php



Hondakinen tratamendu zentroaren kokagunea¹⁰ eta ¹¹

Horrez gain, Baionako zentro industrialaren eraikuntza eta erabilpenak inguruko ekosistemetan ondorio ezin gutxiesgarriak ukanen ditu. Alabaina, zentro horren kokagunea gailur eremuan da, Natura 2000¹² sailkatuak diren bi gunetarik 2 km baino guttiagotan, bertan badirelarik babestuak eta sailkatuak diren oihan batzu.

C/ Fidagarritasun eskaseko enpresa bat:

Urbaser enpresa, eraikuntzaz arduratzen da, bai eta ere enpresaren martxan ezartzeaz eta kudeatzea izan da finantza gastu gehigarrien gatik (+ %25), pilotutako berantaren gatik eta eraikuntzek¹³ ez zituztelako behar ziren emaitzak lortzen .

D / Ezin aurreikusiak diren ondorio ekonomiko, sozial eta ekologikoak:

Baldintza horietan, «Canopia» Hondakin Tratamenduko Zentroaren geroko eragin ekonomiko, sozial eta ekologikoak ezingo dira aurre ikusi eta segurrenik ere jakinaraziak direnatarik urrun izanen dira. Bereizkea Mekano-Biologikoaren prozedura aterabide industrial zentralizatu bat da (lantoki bakar bat Ipar Euskal Herriaren hondakinen %70arentzat), heritarren ardura hartze gutti galdatzen du (ez dute erabiltzaileek sailkapen gehiago egin behar), eta oro har «garapen berdearen» ezpiritutik gehiago hurbiltzen da. Pentsatzekoa da aterabide horrek Urbaser enpresaren etekinei on eginen diela, baina ez du ahalbidetuko tokiko heritarrei eta langileei lasaitasunean eta osagarrian bizitzera eta lan egiterat.

Azkenik, inguruko ekosistementzat arrisku bat adierazten du bai eta ere delako «konpostaren» barreiatze guneentzat.

Ondorioz, Bizi!k nahi ukan ditu ebaluatu Hego Euskal Herrian plantan emana den «Zero Zabor»a bezalako aterabide alternatiboak.

¹⁰ Adech : www.adech.fr

¹¹ Ortzadar n°139, juillet/août 2010 eta www.biltagarbi.fr/actions/DossierNatura2000.pdf

¹² Ortzadar n°139, juillet/août 2010 eta www.biltagarbi.fr/actions/DossierNatura2000.pdf

¹³ www.ledauphine.com/drome/2011/04/28/bras-de-fer-entre-le-sytrad-et-le-groupe-ment-valorga-urbaser : baldintza agiria ez da errespetatua izan gunearen emaitzaren ikuspuntutik (tratatuak izan diren hondakinen kopuru eta kalitatean)


III / Alta beste eredu bat posible da:

Gure zaborren kudeaketa erronka nagusi bat da. Lehengaien baitezpadako begiratze ikuspuntutik bai eta ere zaborraren kudeaketak ingurumen eta osagarri arloetan dituen ondorioen ikuspuntutik. Bizi!rentzat argi da, zaborraren gaiaren konponketa iraunkorra, gogokoa eta baitezpadakoa den gure jendartearen eraldatze sozial eta ekologikotik pasatuko dela.


A/ Eredu «linear»etik «zirkularra» pasatu:

Hara nola, hondakinen gaiaren konpontzeko, gure jendartearen pasatu behar da :

- **iraunkorra ez den hondakinen tratatzeko eredu linear batetik:** planeta mugarik gabe ustiatu, gain-kontsumitzea sustatu, lurperatze gune batzutan zaborrak pilatu,...



- **eredu zirkular eta hetsi batera** (ber-erabiliak edo berziklatuak diren ondasunak bakarrik ekoiztu, hondakinak sailkatu, segurtatu beren ber-erabilpena, berziklatzea/konkpostatzea, eta, beti galtzeak direnez, ondasun materialen ekoizpen globala murriztu, gainestalki edo enbalaje gehiegikeriak bai eta ere objektuen zaharkitze programaguna, etab. errotik borrokatu)



B/ Zero Zabor jarraitzeko eredu:

Hego Euskal Herriko auzo herrien bisitak erakutsi digu Zero Zabor filosofia («zirkuito hetsia»)ren formularen gauzatzeak) desmartxarrik haundinahiena dela **ardurak har arazten dituen, pedagogikoa, ekologikoa eta azpi-egitura haundien ganean baino gehiago tokiko eta kalitatezko lan postu sortzaile den herritarren parte hartzearen eta deszentralizazioaren ganean kondatzen duen jendarte bateruntz joaiteko...**

Herri horiek balioztatze biologikoaren hautua egin dute, jakinez bio-hondakinen biltze separatua kudeatzen dutela (Bil Ta Garbik landu zuen gidoi bat, baina ez duena atxiki). Pratkan emaiten dute eta segurtatzen ere hartigarrien (bizitegietako hondakinen %40a) sailkapen/bereizketa, beren biltzea eta beren balioztatzea konpoztatzearen bidez. Ikus «Zero Zabor ezagutu» bideoa hemen www.bizimugi.eu/?p=4441 xehetasun guztiak ukaiteko :

- **desmartxari buruz:** auzoka, herritarren sentsibilizazio kanpaina, egunero biztanleek hondakin mota bat ateratzen dute (barrekilako kodigoekin identifikatuak diren zikin ontzi batzuren bidez), zabor biltzaile bat bere kamionarekin dena batean biltzerat etortzen zen gunean, zabor-biltzaile animatu eta kalifikatuago batzuk orain aholkulari/kontrolatzaile bai eta herritar eta administrazioaren artean bitartekari rola betetzen dutelarik.
- **lortzen diren emaitzei buruz:** %80etik goiti berziklatze/ber-erabilpen etxebizitzetako hondakinen arloan, herriko aurrekontua doi doietarik karioago delarik (erretuak edo lurperatuak diren hondakinentzat gastu guttiago dira, eta berziklatzeari esker sartze gehiago, eta hori jendeetan inbertsioa segurtatuz (tokiko eta kalitatezko lanpostu baloratuak sortuz).

Egun bakoitzean frakzio bat Sortir chaque jour, un type de déchet



C/ Euskal Herrian plantan ezartzeko pratika:

Bizi!k zaborraren kudeaketa arloan urrunago joaiteko medio bat, molde zehatz bezain berehalakoan, atxeman nahi du.

Hara bi arlo, non hainbat ekintza aintzinerat eramanak izaiten ahal diren Bizi !ren eta zaborren arloko hainbat aktoreren elkarlanarekin (izan daitezten instituzionalak edo elkarte mundukoak).

1/ Bilketaren arloan:

Herrietan, herri elkargoetan edo ardua hori duten sindikatuetan, zaborraren gaia kudeatzen duten hautetsiekin bai eta ere nahi duten herritar eta elkarte guziekin :

- **Tokiko hautetsien sentsibilizazioa... eta molde orokorrean Iparraldeko jendarte zibilarena:** zaborraren inguruan formakuntzen segurtatzeko tresna sorta bat antolatu eta bertan integratu Usurbil eta Hernaniko bai eta Gipuzkoa Zero Zabor-eko aktoreak aholkulari gisa. Aurkezpen dokumentoak bai eta ere «Zero Zabor ezagutu!» bideoa aintzinean emanak izanen dira www.bizimugi.eu gunearen bidez formakuntza kanpainaren garaian.
- **Hautagaitza deia egitea eta ondotik Zero Zabor-i buruz trantsizioan den Iparraldeko «herri aintzindari» baten baloratzea:** hara nola, kalitatezko ekoizpenak aintzinean emaiten dituen Herri bat behartua da balioztatze desmarxta horren pratikan emaiterat hondakinen arloan ere. Zaborraren tratatzeko abangoardiako moldea desmarkatzeko molde bat da ere, herriak berataz ohartarazterat, eta ondorioz herriaren famaren indartzerat, lantzerat eta dibertsifikatzerat. Herriak horrela erakutsiko du «datozen belaunaldier buruz» arduraren sentsua.
- **Ezagutaraz, onartaraz eta baloratu eko-herritar jokaerak :** ardua hori duten elkargoekin ikertu zer posibilitate eta administrazio bideragarritasun baden zaborren taxaren ttipitzeko (norbanakoaren mailan edo kolektiboki konpostatzen dutenei zerga zorraren ttipitzea).

2/ Tratamenduaren arloan... Bil Ta Garbi-rekin elkarlanean :

- **Konpostatzearen inguruko sentsibilizazio kanpaina indartu/zabaldu :**
 - Proposatu/zabaldu etxebizitza kolektiboentzat (eraikin, etab.) eta nahi duten herritarrentzat konpostagailu kolektiboan ibiltzen ezartzeko metodoak.
 - Gutti edo ia bate erabiliak diren formulak proposatu : konpostatzaile adituen parte hartzea, xehatzaile prestatzea baratzeak dituzten etxebizitzentzat, xixare konpostatzaileak apartamenduentzat.
 - hondakin organikoen bilketaren kalitatea segurtatu/segitu horri lotuak diren aurrekontuen koerentziari kasu eginez: alabaina, metanizazioa, eta hartzigarriak laborantzan erabiltzen ahal den konpostan aldatu nahi dituen edozoin proiektuk ezin du jatorriko sailkako bilketa aintzintatu bat gabe egin. Hautu horrek honakinen kudeaketa «zirkuitu hetsian» xertatu nahi duen proiektu ororen sinesgarritasuna definitzen du.
- **Iparraldean birziklapen tasen eboluzioa aldian aldian jarraitzeko parada emanen duten irakurketa giltza batzu ikertu eta plantan eman:** horri esker, **zaborraren gaia eztabaida publikoaren erdian ezarria izanen da.** Adibide gisa, hara zer galderari beharko litaizken erantzunak ekarri data finko batzutan : « Gaur egun zein da hondakinen kopurua, jatorria, eta berziklapen tasa ? Zer gertatzen da balioztatutak edo berziklatutak ez direnekin ? Zein dira datozen urteetan aurreikusten diren aldaketak (kopuru, etab.) ? Zer egiten du ene herriak arlo horretan ? Zonbat/Nola/Zertakok ordaintzen dugu Etxe Hondakinentzat Tasa bat... Zein dira ondorioak ?»

Konklusioa

Produktibismoa, kontsumo-jendartea, “burugabeko hazkunde” gainean baizik oinarrituak diren gure sistema ekonomikoen salaketa, Bizi!-ren ekintzaren mami garrantzitsuena da. Hain zuzen ere, egunero gero eta nabariago da gure gizartearen antolaketa - OCDEko herriak eta BRICSeakoak (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hego Afrika) dira hemen aipatzen - lehengai guztien eskasaren kausa, gure ingurumenaren kutsadura orokorraren eta gertatzen ari den iraultze klimatikoaren arrazoi nagusia dela. Gaur egun, hiru izugarritzko irrisku horiek badute egiazko inpaktu negatiboa ingurumen eta gizakiaren etorkizunari buruz, datorren urteetan nahitaez, areagotu den inpaktua ez baldin bazaio beste bide erradikala bati lotzen.

Hondakinen gaiari buruz, Bizi! damutzen da Bil Ta Garbi-k egin duen TMB/SMB prozesuaren hautuaren aitzinean. Hautu hau konponbide industrialeen, zentralizatuen eta arduragabeen historaren zerrendan sartzen da. Alta neurri laudagarri bezain aurrerakoiak, hala nola 14 bereizketa enbaxadore, plantan ezarri zituztenean, pentsa zitekeen ondoko urratsak jarraikiko zituztela ezinbestekoa den norabide aldaketari buruz.

Orokorki, Bizi!-ik gomendatzen die erabakitzaile politikoei Zero Zabor urraspide edo desmartzari hurbiltzea: kontsumitzen eta botatzen dituen gauzei norbanakoaren sentsibilizazioa, iturburuan egiazko bereizketa, berrerabiltze, berziklatze, bertokiratze eta enpleguen balorazioa. Bil Ta Garbi-ko hautetsiak beren hautuan tematzen baitira, Bizi!-k fermuki eskatzen die CANOPIAren instalazioen hedadura nahitara mugatzea. 60 milioiko euro zamaren parte bat, gorago aipatutako aterabide alternatiboetan erabilgarria litzateke. Bereizki etxeetan hondakin hartzigarrien bereizketan. Azkenik, bereizketa hau zerga pertsonalizatu bati lotzen ahal litaik, biztanleen bertutezko jokabideen arabera.